

SIDEROMETALURGIA ETA EKIPAMENDU-ONDASUNAK SIDEROMETALURGIA Y BIENES DE EQUIPO

ELMA / GELMA



(AVPIOP/IOHLEE)

Gipuzkoa

Arrasate Mondragón

Erdigunea Casco urbano

Josune Zaldua Goena

Historikoki, Arrasateko industrialdea Erdi Aroko herrigunetik hegoaldera eta ekialdera zabaldu da, Deba ibaiaren alboan, Gasteizko garai bateko errepidetik barrena Musakola auzorantz. Ingurune horretan egon ziren, hain zuzen, Unión Cerrajera de Mondragón, ASAM, Roneo eta tankerako enpresa enblematikoak, baita bestelako tailer txiki ugari ere. Guztiek ere ekoizpen-beharretara egokitu zuten eremu hau. Enpresa horien artean zegoen ELMA SA ere.

Gaur egungo Fundiciones GELMA SA enpresa, La Cerrajera Moderna ELMA SA izenarekin 1924ko apirilaren 13an erregistratu zuten elkartearen oinordeko zuzena da. Bazkide sortzaile guztiak Arrasatekoak ziren: Gregorio eta Eugenio Etxebarria, Pantaleon Leibar, Francisco eta Roman Velez de Mendizabal, Joakin Arregi, Julio Agirrebeitia eta Daniel Arkauz. Horien artean, Unión Cerrajera de Mondragón enpresako langile eta kontramaisu zaharrak zeuden, eta, hala, enpresa-ibilbide propioari ekin zioten. Elkarte honen xedea era guztietako sarrailak, torlojuak eta

Históricamente el área industrial de la villa de Arrasate se ha extendido al sur y este del casco medieval, junto al río Deba, prolongándose por la antigua carretera Madrid-Irun hacia el barrio de Musakola. Empresas emblemáticas como la Unión Cerrajera de Mondragón, ASAM o Roneo, junto con un tupido entramado de pequeños talleres, encontraron aquí su espacio y lo adaptaron a sus necesidades productivas. La firma ELMA S.A. fue una de ellas.

La actual empresa Fundiciones GELMA S.A. es la heredera directa de la que se fundó bajo la razón social de La Cerrajera Moderna ELMA S.A. según escritura del 13 de abril de 1924. Los socios fundadores, todos ellos de Arrasate, fueron Gregorio y Eugenio Echevarría, Pantaleón Leibar, Francisco y Román Vélez de Mendizabal, Joaquín Arregui, Julio Aguirrebeitia y Daniel Arcauz. Entre ellos se contaban antiguos operarios y contra maestros de la Unión Cerrajera de Mondragón, que iniciaban así su propia andadura empresarial. El objeto de la sociedad era la fabricación y venta de toda clase de artículos de cerrajería,

burdineria egitea eta saltzea zen, bai eta burdinurtuzko edo xaflagarrizko piezak edota beste metal batzuek egindakoak ere.

Hasiera hartan, enpresak eraikin bakarra zeukan, eta sarriak egiten zituzten. Legarra udal-barrutian zegoen, Deba ibaiaren eta Gasteizko errepidearen ondoan, Musakola auzoan. Aipatutako eraikinak egurrezko egitura eta harlangaitzezko karga-hormak zeuzkan. Lau sail zituen: tailerrak eta biltegiak; aroztegia eta esmaltaketa; estanpaketa, pieza-garriketa, eztainu- eta zink-bainuak; eta, azkenik, galdategia eta piezei bizarrak kentzeko tokiak.

Enpresak hazkunde handia izan zuen, eta hasierako fabrikaren inguruan lurra eskuratu zituen; esate baterako, Legarra udal-barrutian, Malako-soluan, Legarresko errota-orenak izandako lurretan (presako estribuaren ondoan) edota Betasolo udal-barrutian. Era berean, jatorrizko eraikina handitzeari ekin zioten.

Hala, 1930eko irailean, bulego-eraikin ezagunaren proiektua (dorre-eraikina) sinatu zuten Donostian. Proiektuaren izenburua «Proyecto de fábrica para la Sociedad ELMA» zen, eta egile ezezaguna du (dokumentuan ezin da irakurri). Hala eta guztiz ere, Industrial Mondragonesa enpresaren fabrika desagertuaren proiektuarekin antzekotasun estetikoa eta formalak ditu. Proiektu hori ere Donostian sinatu zuen, 1930ean, Arana industria-ingeniariak; horrexegatik pentsatzen dugu eraikin honen egilea ere ingeniari bera izan zela. Eraikina ez zuten 1931ra arte bukatu, eta obrez Construcciones Luis Olasagasti SA arduratu zen.

Hamargarren urteurrenean, 1934an, enpresak katalogo bat argitaratu zuen, eta bertan bere ibilbidearen eta ahaleginen balantze benetan ona egin zuen. Adierazten zutenaren arabera, azken horiek «errealitate eder bilakatu ziren».

tornillería, ferretería y de piezas fundidas de hierro colado o maleable o de otros metales.

En un primer momento la firma contaba con un único edificio, destinado a fábrica de cerrajería, que se ubicaba en el término de Legarra, junto al río Deba y la carretera Madrid-Irun, en el barrio de Musakola. Este edificio presentaba estructura de madera y muros de carga en mampostería, y contaba con cuatro departamentos: uno destinado a talleres y almacenes; otro a carpintería y esmaltaría; un tercero dedicado a estampación, limpieza de piezas, baños de estaño y zinc; y por último otro en el que se localizaban la fundición y rebarbado de piezas.


La empresa conocerá pronto un fuerte crecimiento y adquirirá los terrenos circundantes a la fábrica inicial en el citado término de Legarra y otros ubicados en Malako-solua o en pertenecidos del molino de Legarres, junto al estribo de su presa, o los del término de Betasolo, y asimismo acometerá la ampliación del edificio originario.

En septiembre de 1930 se firma en San Sebastián el proyecto del conocido edificio de oficinas —el edificio de la torre— bajo el título de «Proyecto de fábrica para la Sociedad ELMA», del que desconocemos el autor (no se lee en el documento). Sin embargo sus similitudes estéticas y formales con el proyecto de la ya desaparecida fábrica de Industrial Mondragonesa, firmado también en San Sebastián en 1930 por el ingeniero industrial Arana, nos llevan a pensar en la misma autoría también para este edificio. Sus obras de ejecución se prolongaron hasta 1931 y fueron realizadas por Construcciones Luis Olasagasti S.A.

En su décimo aniversario, en 1934, la empresa publicó un catálogo en el que realizaba un balance realmente positivo de su trayectoria y de sus esfuerzos, que habían «cristalizado en bellas realidades». La marca ELMA, la mis-



ELMA S.A.ren bulego eraikinaren ikuspegi orokorra. (Santi Yaniz)
Vista general del edificio de oficinas de ELMA S.A. (Santi Yaniz)



ELMA S.A. enpresaren katalogoaren portada. 1934. urtea. (Fundiciones Gelma S.A.ren Artxiboa)

Portada del catálogo de la empresa ELMA S.A. Año 1934. (Archivo Fundiciones Gelma S.A.)

ELMA marka, enpresa-izenaren berbera (bazkide sortzailen abizenen hasierako hizkiez osatua), mundu zabalean ezagun egin zen, bereziki Hego Amerikako eta Europako merkatuetan. Lurralde honetako eta sektore osoko makina-erremintako enpresa garrantzitsuenetako bat bilakatu zen, beraz. Etxean erabiltzeko artikulua ekoizten zituen; esate baterako, neurri guztietako kafe-errotak, ateetarako itxi-gailu hidraulikoak, su txikiak, izozki-makinak, haragi-xehagailuak, ur-biltegiak, puregailuak, iragazkiak, lapikoak, etab. Hodiatarako xaflakorrezko osagarriak ere egiten zituen; arlo honetan, gainera, Estatuko lehen fabrikatzailea zen, baita bakarra ere.

Fabrikari 300 langile aritzen ziren, eta 13.000 m²-ko azalera erakia zuen. Instalazioetan hainbat sail zeuden. Sukaldeko tresnak fabrikatzeko saila elkarren aldameneko bi eraikinetan zegoen. Bietako batek solairu bakarra zuen, eta harlangaitzeko altxaerak eta egurrezko egitura zituen; bertan, tailer mekanikoak, forjaketa, leunketa, eztainu-soldadura, elektrizitatea, eta biltegiak zeuden (biltegietan lehengaiak, erremintak, esmalteak, urtuzko piezak, eztainu-bainuak, zink-bainuak, hondar-zurrustak, piezak garbitzeko ontziak, etab. gordetzen zituzten). Bigarren eraikina, berriz, zementu armatuz eraikita zegoen, eta beheko solairua gehi beste hiru zituen; halaber, dorre handi bat ere bazeukan, fabrikako atezainaren etxebizitza bezala erabiltzen zutena. Eraikin horretan serieko piezen eta egindako obraren biltegiak zeuden, baita artikulua muntatzeko gela ere; era berean, galvanoplastia, pintura, erakusketa-bulegoa eta tankerako sailak ere bazeuden. Hirugarren eraikin batean galdategia zegoen. Solairu bakarrekoa zen, eta, harlangaitzeko eta zementu armatuzko hormak zituen; egitura, berriz, burdinazkoa zen. Bertan ere hainbat sail zeuden; esate baterako, galdaketarako saila, bizarrak kentzekoa, modelo-plakak erakitzekoa, osagarriak mekanizatze gunea eta laborategia,

ma que la razón social (formada por las iniciales de los apellidos de los socios fundadores), era ya conocida a nivel mundial, especialmente en los mercados suramericanos y europeos. Se había convertido en una de las empresas de máquina herramienta más importantes del territorio y del sector; dedicada a la producción de artículos de uso domésticos como molinos de café de todos los tamaños, cierres hidráulicos para puertas, infiernillos, heladoras, picadoras de carne, depósitos de agua, prensapurés, coladores, ollas, etc. También elaboraba accesorios de maleable para tubería, siendo el primer y único fabricante del Estado.

La fábrica ocupaba ya a 300 obreros y contaba con una superficie edificada de 13.000 m². Sus instalaciones acogían diversas secciones. La fábrica de utensilios de cocina estaba formada por dos edificios contiguos. Uno, de una única planta con alzados de mampostería y estructura de madera, destinado a talleres mecánicos, forja, pulición, soldadura de estaño, electricidad y almacenes de materias, de herramientas, de esmaltes, de piezas fundidas, estañadas, baños de estaño, zinc, chorros de arena, bombos para limpieza de piezas... El segundo edificio, construido íntegramente en cemento armado, constaba de planta baja y tres alturas, con un torreón que servía para piso del portero de la fábrica. En este edificio se encontraban los almacenes de piezas en serie y obra elaborada y de montaje de artículos, junto a secciones como galvanoplastia, pintura y las oficinas con la exposición. Un tercer edificio se destinaba a fundición. Era de una única planta con paredes de mampostería y cemento armado y estructura de hierro. En él se albergaban varios departamentos destinados a la propia fundición, rebarbado, construcción de placas modelos, almacenes de placas, chatarra y accesorios, área de mecanización de accesorios y laboratorio. Y por último contaba también

baita plaken, xatararren eta osagarrien biltegiak ere. Azkenik, aroztegi-nabea zegoen, harlangaitzezko eta zementu armatuzko itxituraduna eta burdinazko armaturadun estalkia zuena. Horretaz gainera, fabrikak zementu armatuzko zubia zuen; zementuzko eta asta erdiko hormak zituen, eta estalkiak burdinazko eta egurrezko armaturak zituen. Deba ibaia zeharkatzen zuen, bai eta bi ibaiertzetan zeuden fabrika-instalazioak komunikatu ere.

Hain zuzen ere, 30eko hamarkadako argazkiek oso erai-kuntza-multzo heterogeneoa erakusten dute, eraikuntza-tipologiari dagokionez; izan ere, enpresa-bilakaeraren fase guztiak nabari dira bertan. Dorre-eraikin enblematikoaren ondoan, bulegoekin batera, ekialdera ematen duten zerra-horzdun nabe txikiak ikusten dira; horien ondoan, berriz, bi isurialdeko beste nabe batzuk ageri dira (galdategi-nabeak, zubia, ur-biltegia...).

Jatorrizko enpresaren instalazioak Debako ibarraren barrenean zeuden, ibaiertz banatan, Gasteizerako errepide nagusiaren eta Vasco-navarro trenbidearen artean. Kokapen pribilegiatu horretan, enpresak ekoizpen-beharren araberako antolatutako espazioa.

Ondoren, 40ko hamarkadan, enpresak hedapen handia izan zuen. Hala, 1944an bazterbide baterako erreia egin zuten Vasco-navarro trenbidetik. Urte horretan bertan, Elma SA fabrikaren defentsa-proiektua onartu zuten; Fernando Íñiguez industria-ingeniariak sinatu zuen Donostian, 1943ko uztailean. Egia esan, asmoa bulego-eraikinaren atzeko eremua berrantolatzea zen; hau da, zegoen nabemultzoa sinplifikatzea. Horretarako, aurrekoa eraitsi eta zerra-horzdun zortzi nabe eraiki zituzten; oraingoan, baina, iparraldera begira altxatu zituzten eta hormigoi armatuzko egitura zuten. Bulego-eraikinetik ibairaino iristen ziren. Era berean, fabrikari itxitura homogenea eman zioten, pantaila moduan; itxitura horrek bulego-eraikinaren eta galdategi-nabeen antzeko osagai estilistikoak uztartzen zituen. Halaber, nabe bakoitzerako bi isurialdeko estalkia simulatu zuten. Hamarkada horretan bertan, Velez de Mendizabal sendiak Mendizabal-Enea etxea eraiki zuten multzoaren

con una nave destinada a carpintería, con cerramiento de mampuesto y cemento armado y con armadura de hierro para la cubierta. Además la fábrica disponía de un puente de cemento armado con paredes de cemento y media asta, con armaduras de hierro y madera para su cubierta, que cruzaba el Deba y comunicaba las instalaciones de la fábrica que se extendían ya a ambas orillas del río.

Efectivamente, fotografías de la empresa de los años treinta nos descubren un conjunto de construcciones muy heterogéneas desde el punto de vista de la tipología constructiva en el que se adivinan las diferentes fases de la evolución de la empresa. Junto al emblemático edificio de la torre, con las oficinas, se observan pequeñas naves en dientes de sierra orientadas hacia el este, al lado de otras naves a dos aguas, las primitivas naves de fundición, el puente, un depósito de agua...

Situadas al fondo del valle del Deba, las instalaciones de la empresa originaria se distribuían a ambas orillas del río, entre la carretera general Madrid-Irun y el trazado de la línea del Ferrocarril Vasco-Navarro. Se trataba de un emplazamiento privilegiado en el que la empresa organizó el espacio según las necesidades productivas.

En los años cuarenta la empresa experimentará una importante expansión. En 1944 establece una vía para un apartadero desde el Ferrocarril Vasco-Navarro. Ese mismo año se aprueba el proyecto de defensa de la fábrica Elma S.A. que había firmado en San Sebastián, en julio de 1943, el ingeniero industrial Fernando Íñiguez. En realidad se trataba de reorganizar el espacio posterior al edificio de oficinas, simplificar el entramado de naves existente, derribándolas, con una construcción de ocho naves en *shed*, esta vez orientadas hacia el norte y de estructura de hormigón armado, que se extendían desde el edificio de oficinas hasta el río. Suponía también dotar a la fábrica de un cerramiento homogéneo a modo de pantalla, que conjugaba elementos estilísticos similares al mencionado edificio de oficinas y a las naves de fundición simulando una cubierta a dos aguas para cada nave. Fue también en esta década cuando la familia Vélez de Mendizabal levantó



ELMA S.A. enpresaren instalazioak xx. mendeko 30eko hamarkadako erdi inguruko urteetan. (Fundiciones Gelma S.A. ren Artxiboa)
Instalaciones de la empresa ELMA S.A. a mediados de los años 30 del siglo xx. (Archivo Fundiciones Gelma S.A.)

mendebaldean. Juan Carlos Guerra arkitektoak egin zuen, eta 1947an inauguratu zuten. Gaur egun, Ertzaintza dago bertan.

Hamarkada horren amaieran, berriz, pabiloi gehiago eraiki zituzten galdategi zaharraren ondoan, Deba ibaiaren eskuinaldean. Hormigoi armatuzko egituradun nabeak ziren, hainbat eratako estalkiak zituztenak (branka-argi jarraitudun bi isurialdeko estalkiak, edota tirante metalikoa zuten estalki gangadunak, erabat funtzionalak).

la villa «Mendizabal-Enea» en el extremo oeste del conjunto, obra del arquitecto Juan Carlos Guerra, inaugurada en 1947 y hoy convertida en comisaría de la Ertzaintza.

Ya a finales de los años cuarenta se construyeron nuevos pabellones junto a la antigua fundición en la orilla derecha del Deba. Se trataba de naves de estructura de hormigón armado con diferentes tipos de cubiertas, tanto a dos aguas con linternón corrido como abovedadas con tirante metálico, absolutamente funcionales.




ELMA S.A.ren bulego eraikinaren barnealdea. (Santi Yaniz)
Vista interior del edificio de oficinas de ELMA S.A. (Santi Yaniz)

ELMA enpresako langile-talde batek Fundiciones GELMA sortu zuen 1987ko azaroan, lan-sozietate anonimo gisa. Hiru urte geroago, 1990eko urrian, enpresak taldeko bi konpainia gehiagorekin xurgapen bidezko bat-egitea onartu zuen. Hala, sozietatearen izena berriro aldatu zuten: Fundiciones Gelma SA. Galdategia Aguraingo plantara eraman zuten 1993an, eta, orduz geroztik, Arrasateko instalazioetan ekoizpen-prozesuaren azken zatia egiten dute. Gaur egun, etxe honek burdinurtu xaflagarritzko hainbat pieza ekoizten ditu planopean (eraikuntza-piezak, hodienezko osagariak, automozioa, isolagailuak, industria-piezak...). Halaber, tratamendu termikoko, bizarrak kentzeko, mekanizatuko, murgiltze bidezko galvanizatze eta tankerako sailak ere badauzka, baita produktua eman aurreko azken kalitate-kontrolak ere.

Gaur, Fundiciones Gelma SAK 40ko hamarkadako nabeak ditu oraindik ere Deba ibaiaren eskuinaldean, xafla metalikozko itxiturapean bilduta, eta bertan pilatzen da 2005etik enpresa-jarduera osoa. Aurrez aurre duen ibaiertzean, etxebizitza ugariz inguratuz, 1930eko bulego-erakin enblematikoa baino ez dago zutik. Eraikin hori orube trapezoidal batera egokituta dago, eta behekoaz gain bes-

Fue en noviembre de 1987 cuando un grupo de trabajadores de ELMA constituyeron Fundiciones GELMA como sociedad anónima laboral. Tres años más tarde, en octubre de 1990, se aprobó la fusión por absorción de esta empresa sobre otras dos compañías del grupo, modificando a su vez la denominación social por la definitiva de Fundiciones Gelma S.A. En 1993 el proceso de fundición se trasladó a la planta de Agurain-Salvatierra y desde entonces las instalaciones de Arrasate se dedican a la última parte del proceso productivo. En la actualidad la firma sigue en activo dedicando su producción a la fabricación de diferentes piezas de fundición maleable bajo plano (piecerío de construcción, accesorios para tuberías, automoción, aisladores, piezas industriales...) y acoge secciones de tratamiento térmico, rebarbado, mecanizado, galvanizado por inmersión, etc. y controles de calidad finales, previos a la expedición del producto.

Actualmente, envueltas en cerramiento de chapa metálica, Fundiciones Gelma S.A. mantiene parte de las naves de los años cuarenta en la margen derecha del Deba, donde se concentra toda la actividad de la empresa desde el año 2005. En la orilla opuesta, y rodeado de numerosas viviendas, solamente se mantiene en pie el emblemático edificio de oficinas de 1930. Adaptado a un solar trapezoidal



Fundiciones GELMA S.A.ren egungo galgategi-nabearen egitura-xehetasuna. (Santi Yaniz)

Detalle de la estructura de la nave de fundición actual de Fundiciones GELMA S.A. (Santi Yaniz)

te hiru solairu ditu. Esaten dutenaren arabera, hormigoi armatuzko egituradun lehen eraikina izan zen Arrasaten. Jatorriz, etxeko gailuak ekoizteko saila egon zen beheko solairuan; lehenengoan, bulego nagusiak; bigarrenean, bilera-gelak; eta hirugarrenean, artxiboa eta atezainaren etxebizitza. Ipar-mendebaldean dorre original bat dauka, eta zokaloa eta solairu bakarra marrazten ditu, beirate moduko bao handiek zeharkatutako nabe unitarioa balitz bezala. Tenplu gotikoak gogorarazten ditu. Apaindura-baliabide ugari erabili zituzten; esate baterako, pilastretan ebakitako kutsu barrokoak plakak, erlaitzetako kasetoi klasizistak, krema koloreko errebokoaren gainean baoak bistako adreiluz inguratuta, gailurreriako marrazki berezia... Bitarteko horiek guztiak modernismo finenaren ukitua duen eklektizismoa ekartzen digute gogora.

Garai hartan, arkitekturan aukera tekniko eta estetiko berriak aztertzen ari ziren, eta ELMA S.A.aren eraikinean hormigoi armatuzko egituraren aldeko apustua egin zuten. Era berean, eraikinaren espazio-aukerak ere ondo landu zituzten; horren erakusgarri, barrualde gardenak edota murruek disoluzioa (fatxadetan itxitura gisa bao handien bidez lortua). Aitzitik, apaindura erabat tradizionala da, nostalgikoa agian, eta eraikinaren egitura ikusgarriarekin bat ez datozen kontzeptu zaharkituak errepikatzen ditu. Baliabideak optimizatzeke asmoz, atzealdeko fatxada baino ez da estilo horretatik aldentzen, eta erabat modu funtzionalean

dal, presenta planta baja y tres alturas y, según cuentan, fue el primero de estructura de hormigón armado de Arrasate. Originariamente albergó secciones de producción de unidad doméstica en la planta baja, oficinas generales en la primera, salas de reuniones en la segunda, y archivo y vivienda para el guarda en la tercera. Con una original torre en el ángulo noroeste, simula una organización de zócalo y una única altura cual nave unitaria recorrida por grandes vanos a modo de vidrieras que recuerda los templos góticos. Sin embargo, su decoración despliega todo un repertorio de recursos, como las placas recortadas en las pilastras de sabor barroco o los casetones que se abren en la cornisa, de reminiscencias clasicistas, así como el recerco de vanos en ladrillo visto sobre el revoco en crema o el singular dibujo de la crestería, que constituyen referencias que en su conjunto nos remiten a gustos eclécticos que derivan hacia el modernismo más refinado.

En un momento en el que se exploraban nuevas posibilidades técnicas y estéticas en la arquitectura, en el edificio de ELMA S.A. se asume la apuesta por la estructura de hormigón armado y desarrolla sus posibilidades espaciales, evidentes en sus diáfanos interiores y la disolución muraria, resuelta por los grandes vanos en fachadas como cerramiento. En cambio su lenguaje decorativo resulta totalmente tradicional, tal vez nostálgico, y repite conceptos ya superados que no son propios del despliegue estructural del que dispone. En un afán por optimizar recursos sólo la fachada trasera se desvincula de este lenguaje y

antolatu zuten; hala, baketilazko bao etzan soilek baino ez dute erritmikoki hausten erabat biluzik ageri den horma-atala (azken hori bai, bat dator arkitektura-proposamen berriekin). Eraikin berezi honetan, ezbairik gabe, enpresa ordezkatzeko irudia sortzeko xedea nagusitzen da, eta ondoren egindako instalazio-handitzeak eraikin honetara egokitzen saiatuko dira. Edonola ere, ELMA S.Aren bulego-eraikina Euskal Herriko industria-arkitekturako obra interesgarrienetakoa da; izan ere, eraikuntza-teknika berrien lehen proben erakusle da, baita teknikoki planteatzen zituzten kontzeptu estetikoaren aurreko erreparoa ere.

Hiri-birmoldaketa bete-betean murgildurik, Arrasateko industrialde historikoa desagiten ari dira, eta gerturatzen ari den hirigintza berriak ez du jakin inguru horretako fabrika-iragana berriro interpretatzen, etorkizunari begira islatzeko. Unean uneko elementu batzuk bakarrik utzi dituzte, herriko industria-historia aberatsaren lekuko; zatitxoak baino ez, batzuetan. Hori horrela izanik, ELMA S.Aren bulego-eraikin dotoreak ondare- eta historia-balioa aldarrikatzen du, eta egiazko mugarri da Arrasateko hiri-paisaiaren barruan. Hiri-egitura berrira eranstean benetako balioa ere nabarmenduko diotela espero dugu.

se organiza de una manera decididamente funcional, con sencillos vanos apaisados en baquetilla que de manera rítmica rompen el lienzo del muro totalmente desnudo, que sí corresponde a las nuevas propuestas arquitectónicas. La voluntad de crear una imagen representativa de la empresa prevalece en este singular edificio y las posteriores ampliaciones de las instalaciones tratarán de mantener una correspondencia con él. Con todo, el edificio de oficinas de ELMA S.A. es una de las obras de arquitectura industrial más interesantes del País Vasco, testigo de los primeros ensayos de las nuevas técnicas constructivas y de las reticencias ante los conceptos estéticos que planteaban.

En plena reconversión urbana, la zona industrial histórica de Arrasate está siendo desmantelada y el nuevo urbanismo que asoma no ha sabido reinterpretar el pasado fabril del espacio para asumirlo y representarlo en claves de futuro. Solamente elementos puntuales, a veces fragmentarios, nos remiten a la poderosa historia industrial de la localidad. En este contexto, el elegante edificio de oficinas de ELMA S.A. proclama su valor patrimonial e histórico y constituye un verdadero hito dentro del paisaje urbano de la villa. Esperemos que su reincorporación al nuevo entramado urbano de Arrasate signifique su verdadera puesta en valor.